

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

Zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa. Behin betiko onarpena

Aramaioko Udalbatzak, 2025eko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, hasiera batean onartu zuen, zerbitzu publikoak eskaintzearen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa egitea. Jendaurrean jartzeko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, automatikoki behin betiko bihurtzen da udal ordenantza aldatzeko hasierako osoko bilkuraren erabakia. Erabaki horren testu osoa jendaurrean jartzen da, denek horren berri izan dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betez.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorritz.

Aramaion, 2025eko abenduaren 19an

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA

**ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAREN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASAK
ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA****I. XEDAPEN OROKORRAK**

1. artikulua.- 1/2021 Foru Dekretu Arauemailea, Foru Gobernu Kontseiluarena, irailaren 29koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duenak, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 20ko 1/2025 Legegintzako Dekretuak., Aramaio Udalak ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

Prezio publiko horiek ordenantza honen parte dira ere.

2. artikulua.- Ordenantza hau Aramaio udalerrri osoan aplikatuko da.

II. PREZIO PUBLIKOA**3. artikulua.-**

1. Prezio publikotzat hartuko dira ordaintzen diren diruzko kontraprestazioak, zuzenbide publikoko erregimenean zerbitzuak emateagatik edo jarduerak egiteagatik Tasatzat hartzen ez direnak.

2. Tasen zergapeko egitatea erabilera pribatiboa edo aprobetxamendua da eta zerbitzuak ematean edo jarduerak egitean pertsonari modu partikularrean eragiten edo mesede egiten dioten zuzenbide publikoko araubide zerbitzuak edo jarduerak borondatez eskatzekoak edo jasotzekoak ez direnean, zergadunen kasuan edo sektore pribatuak ematen edo egiten ez dituenean.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Subjektu pasiboak edo zergadunak dira Arabako Lurralde Historikoaren zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko zein juridikoak eta erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

Hauek izango dira zergadunaren ordezkotzat subjektu pasiboak:

- a) Zerbitzuek edo jarduerak etxebizitzaren edo lokalen erabiltzaileei onura edo eragina ekartzen badiete, horien eraginez ordaintzeko beharrezko tasetan, ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunei ordainarazi behar izango dizkiete kuotak.
- b) Arriskua aseguratzen duten erakundeak edo elkarteak, ematen diren zerbitzuak hauek direnean: suteen kontrako neurriak hartzea, suteak itzaltzea, aurri, eraikuntza eta eraisketen babeseko neurriak hartzea, salbamenduak eta oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta, halaber, zerbitzua mantentzea.
- c) Tasak lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutako hirigintza baimenak emateagatik ordaindu behar badira, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua.- Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak partikularrek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatu ez badituzte, baina haien egindako edo ez egindako zerbitzuetatik burutu behar izan badira, egindakoaren edo ez egindakoaren eragileak.

6. artikulua.- Ordenantza honetatik ateratzen diren zortzapenak, subjektu pasiboarekin batera, eranskinean ageri dira tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ordaindu beharko dituzte.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua.- Aplikatu beharreko xedapen orokorren mende egongo da salbuespenak, murrizketak, hobariak eta bestelako zerga onurak ematea.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua.- Zerga oinarria da zerbitzua gauzatzen den unitateetako bakoitza, dagokion tarifak dioen moduan.

VI. ZENBATEKOA

9. artikulua.- Zenbatekoa zehazteko, aurreko artikuluari darion oinarriari, eranskineko tarifetan dagokiona gehituko zaio, tarifa aplikatzeko arauen arabera.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua.- Tasaren zortzapena zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean sortzen da; hala ere, zenbateko osoaren edo zati baten gordailua eska daiteke.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU SARRERA

11. artikulua.- Kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioak Aramaioko udal administrazioak egingo ditu, eta likidatutako kuota dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako tarifetan dauden arauen arabera. Hala ere, tasak autolikidazioaren bidez ordaintzeko ere eskatu ahalko da.

IX. TASEN KUDEAKETA

12. artikulua.- Ordenantza honek araututako likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arloko arau hausteen kalifikazioari eta zehapenak zehazteari dagokien guztian, Arabako Lurralde Historikoaren zergeri buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

X. EUSKARA

13. artikulua.- Zerbitzua ematen denean, arduradunak herritarrekiko ahozko harremanak euskaraz izan beharko ditu. Horretarako, arduradunak euskaraz ekingo dio elkarriketari, eta, ondoren, erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko du.

Edozein delarik ere ekitaldia, Udalaren jabegoko instalazioak erabiltzeko baimena behar den kasuetan Udalak laguntza eskainiko die euskara erabil dadin, jendaurreko ekitaldietan batik bat. Ekitaldi horiei lotutako idatzizko euskarriak (kartelak, iragarkiak, oharrak...) euskaraz egingo dira, hala nola, ahozko adierazpenak ere. Baldin eta pertsona edo erakunderen batek baimena jaso eta Udalaren hizkuntza baldintzei jaramonik egiten ez badie, Udalak bere esku dituen kasuan kasuko neurriak hartuko ditu (baimena ukatzea, fidantza ez bueltatzea edo dagokiona) hizkuntza araudia bete ez dutenen aurka.

Udal eraikinetan egiten diren ekintzetan euskara lehenetsiko da. Hitzaldi, ikastaro edo antzekoren bat antolatzen bada, euskaraz izango da. Haur eta gazteentzako egiten diren jarduerak ere, euskaraz egingo dira beti. Arrazoitutako egoeretan salbuespenak egon daitezke.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira bertan ezarritakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak, eta, bereziki, «ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINTZEAGATIK ETA ADMINISTRAZIO JARDUERAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA» (2008ko abenduaren 24ean argitaratu zen osorik ALHAOn).

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA:**1.- EUSKARA, KULTURA, KIROLA ETA GIZARTE EKINTZAK**

1.1.- Ikasturte osoko kirol ikastaroak. Iraupenaren arabera finkatuko da tarifa, modu honetan:

- Asteaz ordubete 60 euro
- Asteaz bi ordu 120 euro
- Asteaz hiru ordu 180 euro

*** Hobariak:**

- Pertsona nagusientzat mantentze gimnasiako ikastaroa: salbuetsita

*** Irizpideak:**

- Gutxienez 10 pertsona beharko dira ikastaro bakoitza egiteko.
- Jarduera baterako plaza baino eskaera gehiago egonez gero, lehentasuna izanen dute errolatuek..
- Jarduera amaitu aurretik bertan behera uzteak ez du kuota ordaintzetik salbuesten.

1.2.- Euskara ikastaroak: salbuetsita

1.3.- Udaleku irekiak. Aramaioko Udalak antolatzen dituen udaleku irekietan parte hartuko duten umeek irizpide hauen arabera egingo dute ordainketa:

- Lehen seme-alaba70 euro
- Bigarren seme-alaba50 euro
- Hirugarren seme-alaba.....40 euro

* Umeak egun gutxiago parte hartzen badu ere, prezioa mantenduko da.

1.4.- Bestelako ekintzak (kontzertuak, antzerkiak, tailerrak, irteerak,...): Banan-banan baloratuko dira

***ORDAINTZEKO MODUA:**

Dagokion kuotaren ordainketa ekintzaren arabera zehaztuko da

2.- UDAL PILOTALEKUA ERABILTzea***ORDUTEGIA:**

Udal Pilotalekua **ordutegi honetan** erabili daiteke:

- Astelehenetik ostiralera: 17etatik 21etara
- Larunbatak: 16etatik 20etara
- Igandeak: 10etatik 13era

***ERABILERAk:**

- Ikastetxeak
- Guraso elkarte eta kirol entitateek Eskola Kiroleko ekintzak egiteko
- Kirol lehiaketak eta kirol sustapena bideratzeko ekintzak
- Kirol ekintzak, jolasak, ikastaroak, entrenamenduak,..
- Erabilera libre

2.1.- KANTXA**2.1.1.- DENBORALDIKO ESKAERAK:**

- Klubek eta elkarteek espazioaren eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute.
- Kirol kantxa erabiltzeko eskaera eta orduen esleipenetan, udalerrian erroldaturik dauden pertsonen izango dute lehentasuna, eta klub edo elkartearen kasuan, udalerrikoak direnak.
- Klubek eta elkarteek espazioaren eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute.
- Banakako erreserba eskaeren kasuan, ohiko moduan egingo da kiroldegian.
- Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.

2.1.2.-ORDUEN BANAKETA:

Herriko elkarteekin adostuko da urteko entrenamenduetarako behar dituzten ordu kopuruen arabera egutegia. Elkartearen ondoren, zerbitzua eskintzen duten partikularrek izango dute lehentasuna eta azkenik norbanakoek.

Horretaz gain, libre geratzen diren ordu kopuruak erabiltzeko interesa duten herritarren artean adostuko dira eta akordiorik ez bada lortzen zozketatuko dira. Irailean egingo da zozketa eta ikasturte osorako baliogarria izango da, ekaina bitartean.

2.1.3.-ERABILERA LIBREA:

Erreserbarik ez badago, udalerriko pertsonen kantxa erabili ahal izango dute aisialdiko kirol jardueretarako.

2.1.4.- KUOTAK:

KANTXA	ERABILERA	6 euro/orduko kantxa osoa 4 euro/ orduko kantxa 1/2
--------	-----------	--

*Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

2.1.5.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK:

- Elkarreak: salbuetsita
- Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

2.1.6.- EKINTZA BEREZIAK:

Ekintza kulturalak, kirol ekintza bereziak edo kirolarekin zerikusirik ez duten ekintzak

- Elkarreak.** Elkarreak edozein motatako ekintza antolatzen badute pilotalekuan, Udalaren baimena izan beharko dute eta 150 euroko fidantza jarri beharko dute. Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Ekintza herritarrei irekita egon beharko da.
- Ekintza pribatuak edo/eta itxiak:** Udalaren baimena izan beharko dute eta 300 euroko fidantza eta orduko prezioa ordaindu beharko dute.
 - o Orduz kanpoko langileen orduak ordaindu beharko dira.
 - o Kantxa eta garbiketa: 60 euro

* Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

- c. **Irabazi asmoarekin antolatzen diren ekitaldiak.** Antolatzen den ekintza irabazi asmoarekin antolatzen bada, empresa edo beste erakunde batek antolatuta, Udalaren baimena izateaz gain, 300 euroko fidantza jarri beharko dute, 200 euroko tasa ordaindu beharko dute eta orduko prezioa ordaindu beharko dute
- o Kantxa: Ordu bakoitzeko (argirik gabe): 50,00 euro
 - o Kantxaren garbiketa: 60 euro
 - o Orduz kanpoko langileen orduak ordaindu beharko dira.
- d. **Lo egitea:** Udalaren baimena izateaz gain, 50 euroko fidantza jarri beharko dute, guztira 60 euro tasa (durtak barne)
- * Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

- Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.

- Prezio publikoen ordainketan ez dago muntaia eta desmuntia lana sartuta.

2.2.- GIMANSIOA

2.2.1.-ESKAERAK:

- Gimnasioa erabiltzeko eskaera eta orduen esleipenetan, udalerrian erroldaturik dauden pertsonak izango dute lehentasuna, eta klub edo elkartearen kasuan, udalerrikoak direnak.
- Klubek eta elkarteek espazioaren eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute.
- Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.

2.2.2.- DENBORALDIKO ORDUEN BANAKETA:

Herriko elkarteekin adostuko da behar dituzten ordu kopuruen arabera egutegia.

Irailean egingo da zozketa eta ikasturte osorako baliogarria izango da, ekaina bitartean.

2.2.3.- KUOTAK:

GIMNASIOA	ARAMAIOKO HERRITARRAK	5 euro/orduko
-----------	-----------------------	---------------

*Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

2.2.4.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK:

- Elkarteak: salbuetsita
- Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

* Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

2.2.5.- EKINTZA BEREZIAK:

Ekintza kulturalak, kirol ekintza bereziak edo kirolarekin zerikusirik ez duten ekintzak

- a. **Elkartekak.** Elkarrekin edozein motatako ekintza antolatzen badute gimnasioan, udalaren baimena izan beharko dute eta 50 euroko fidantza jarri beharko dute. Tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira. Ekintza herritarrei irekita egon beharko da.
- b. **Ekintza pribatuak edo/eta itxiak:** Udalaren baimena izan beharko dute eta 50 euroko fidantza eta orduko prezioa ordaindu beharko dute.
- Gimnasioa: Ordu bakoitzeko: 10,00 euro
 - Gimnasioaren garbiketa: 20 euro
 - Orduz kanpoko langileen orduak ordaindu beharko dira.
- * Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.
- c. **Irabazi asmoarekin antolatzen diren ekitaldiak.** Antolatzen den ekintza irabazi asmoarekin antolatzen bada, enpresa edo beste erakunde batek antolatuta, Udalaren baimena izateaz gain, 50 euroko fidantza jarri beharko dute, 50 euroko tasa ordaindu beharko dute eta orduko prezioa ordaindu beharko dute:
- Gimnasioa: Ordu bakoitzeko: 10,00 euro
 - Gimnasioaren garbiketa: 20 euro
 - Orduz kanpoko langileen orduak ordaindu beharko dira.
- d. **Lo egitea:** Udalaren baimena izateaz gain, 50 euroko fidantza jarri beharko dute, 30 euroko tasa ordaindu beharko dute. Gimnasioan gehienez 15 pertsonen egin ahal izango dute lo.
- * Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.
- Espazioaren eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute eta gutxienez hamabost egun lehenago egin beharko da.
 - Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.
 - Prezio publikoen ordainketan ez dago muntaia eta desmuntaia lana sartuta.

2.3.- KAMPOKO FRONTOIA

Kanpoko frontoiak erabilera librea izango du. Baina frontoia okupatuko duen ekintza bat antolatuz gero, udaletxean eskaria egin eta 150 euro fidantza jarri beharko da. Ekintza irabazi asmoarekin antolatzen bada, 200 euro tasa izango du.

2.4.- KULTURA GUNEAK ERABILTZEA

2.4.1.-ESKAERAK:

- Kultur ekipamenduak erabiltzeko eskaera eta orduen esleipenetan, elkarrekin lehentasuna izango dute.
- Eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute.
- Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.

2.4.2.-ORDUEN BANAKETA:

Herriko elkarrekin adostuko da behar dituzten ordu kopuruen araberako egutegia.

Irailean egingo da zozketa eta ikasturte osorako baliogarria izango da, ekaina bitartean.

2.4.3.- KUOTAK:

KULTUR GUNEAK	IRABAZTEKO ASMOAREKIN
KZ GUNEA	15 euro orduko
ARETO NAGUSIA	20 euro orduko
BIGARREN SOLAIRUKO GELA HANDIA	15 euro orduko
HIRUGARREN SOLAIRUKO GELA HANDIA	15 euro orduko
SASTIÑA	15 euro orduko
PLENO ARETOA	15 euro orduko
ESKOLAKO JANGELA	garbiketa 60euro

*Lehen ordutik aurrera ordu laurdeneko aldiak hartuko dira kontuan kobratzean. Ordu laurden horren prezioa orduaren zati proportzionala izango da.

2.4.4.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIK:

- Elkartek: salbuetsita
- Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

2.5.- UDAL MATERIALAK

2.5.1.-ESKAERAK:

- Udal materialak erabiltzeko eskaeren esleipenetan, elkarteek lehentasuna izango dute.
- Eskaera egiteko, egoitza elektronikoa erabili beharko dute.
- Erabiltzeko tasa udalak baimena eman ondoren ordainduko da eta betiere jarduera hasi aurretik.

2.5.2.- KUOTAK:

UDAL MATERIALA	IRABAZTEKO ASMOAREKIN	
SOINU EKIPOA+ MIKROA	75 euro eguneko	Hartzailea arduratuko da jaso eta bueltatzeaz.
SOINU EKIPO TXIKIA	50 euro eguneko	Hartzailea arduratuko da jaso eta bueltatzeaz.
SOINU MAHAIA	50 euro eguneko	Hartzailea arduratuko da jaso eta bueltatzeaz.
KIROL MATERIALA	Materialaren arabera aztertuko du kultura eta kirol batzordeak.	Hartzailea arduratuko da jaso eta bueltatzeaz.
KARPA	75 euro txikia 125 euro handia	Eskaeraren erantzunarekin jasoko dira jaso eta bueltatzeko baldintzak
MAHAIAK	5 euro bakoitzeko	Eskaeraren erantzunarekin jasoko dira jaso eta bueltatzeko baldintzak

AULKIAK	0,5 euro bakoitzeko	Eskaeraren erantzunarekin jasoko dira jaso eta bueltatzeko baldintzak
TALO MATERIALA	100 euro	Eskaeraren erantzunarekin jasoko dira jaso eta bueltatzeko baldintzak
ESZENATOKI TXIKIA	100 euro eguneko	Eskaeraren erantzunarekin jasoko dira jaso eta bueltatzeko baldintzak

2.4.4.- SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK:

- Elkarateak: salbuetsita
- Salbuespen gisa, udalak prezio publikoaren edo/eta fidantzaren salbuespena eman ahal izango du.

SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

Honako salbuespen eta hobari hauek finkatu dira:

- Salbuetsita egongo dira gizarteratzeko dirusarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak, baina egoera hori egiaztatu beharko dute. Kasu honetan ehuneko 50eko hobaria izango dute gizarte larrialdiko laguntza jasotzen dutenek.
- Langabezian daudenek ehuneko 75eko hobaria izango dute, eta Lanbideko txartelaren bidez ziurtatu beharko dute.